



**28/2004 GOMENDIOA, AZAROAREN 23<sup>KOA</sup>, ERMUKO UDALARI EGINA, ONDARE ERANTZUKIZUNAGATIK EGINDAKO ERREKLAMAZIO BAT BERARIAZ EBATZ DEZAN.**

Aurrekariak

1. Kexagileak ondare erantzukizunagatiko erreklamazio bat egin zion udalari, herrian oinez zihoala burdinazko pibote bat oinean erori zitzaionean jasan zituen kalteengatik.
2. Gertakaria, bere ustez, udalari lepora zekiokeen, elementu hori lotu gabe zegoelako, eta, hortaz, jasandako kalteengatik ordaina jasotzea zegokion.
3. Erreklamazioa egin zuenetik denbora luzea igaro zen arren eta gai horretaz hainbat gestio burutu zituen arren, bere eskabideak erantzunik gabe jarraitzen zuen eta horregatik eman zigun gaiaren berri.

Gogoetak

1. Kexagileak eskuratu zizkigun agiriak aztertu eta gero, kexa bideratzeko onartzea erabaki genuen, bada, aurrekari horiek kontuan izanik, kasu honetan soberan gaudituz ziren herri-administrazioek horrelako prozedurak bukatzeko dituzten epeak: hain zuzen, sei hilabeteko epea ezarria du martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak –herri-administrazioek ondare erantzukizunaren arloan burutu beharreko prozeduren Araudia onartzen duenak– 13.3 artikuluan.

Beraz, udalari idatzi eta zertzelada hori aipatu genion. Aukera horretaz baliatuz, honako hau ere jakinarazi genion: Arartekoak sarritan adierazi duela zein ondorio kaltegarriak izaten dituen administrazioak isiltasuna erabiltzeak, eta une oro gogorarazi duela administrazioak berariaz erantzun behar diela herritarrek aurkeztutako idatziei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak 42.1 artikulua lehen paragrafoan oro har ezarritakoaren arabera. Honela dio:

*“Administrazioak berariazko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere”.*



Beraz, erreklamazioari buruz, zuzenbidearen arabera bidezkoa zena erabaki zezala eskatu genion, eta ordura arte bideratutako espedientea bidal ziezagula, bere ustez espedientearekin lotura zuen informazioarekin batera.

Jasotako erantzunean, erreklamazioa aseguru-artekaritza bati bidali ziola adierazi ondoren, gai horretaz berariazko ebazpenik ez zela eman aitortu zuen, bada, bere iritzian, aldean zituen aurrekariak inolako erantzukizunik ez zegoela pentsarazten zuten.

2. Erantzun hori ikusita, berriro udalari idatzi genion, honela, hain justu:

*“...Hemos recibido la contestación a nuestra solicitud de información. Aunque lamentamos tener que expresarlo, tenemos que significar que no podemos prestar nuestro asentimiento al contenido de la misma.*

*A la vista de lo manifestado, reconocen que no se ha llevado a cabo un pronunciamiento expreso en torno a la reclamación, aspecto que como saben ha de producirse de manera obligada en función del deber de las administraciones públicas de resolver expresamente todos los procedimientos.*

*Aducen en su escrito que los antecedentes con que cuentan llevarían a desestimar las pretensiones de la interesada. No corresponde, al menos en estos momentos, extenderse en consideraciones sobre este particular que conducirían a prejuzgar el sentido de la resolución a dictar.*

*Precisamente de lo que se trata es de que se desarrolle el procedimiento establecido para que ese juicio pueda materializarse. Esto es, es en el curso de ese procedimiento cuando las partes en conflicto pueden y deben hacer valer sus derechos e intereses.*

*Por ello, entendemos que la actuación de la entidad municipal puede originar que la promotora de la queja se vea privada de la garantía que comporta todo procedimiento, principio que también rige en materia de responsabilidad patrimonial, como mecanismo articulador del derecho a recibir un pronunciamiento de la Administración, en este caso ese Ayuntamiento, que culmine en la resolución que jurídicamente proceda.*

*Estas reflexiones encierran mayor lógica si cabe en el caso concreto que examinamos, pues, de los documentos aportados por la afectada, consta que*



*ha habido correspondencia entre las dos partes: escrito de reclamación con informe médico; comunicación municipal pidiendo ampliación de datos; respuesta a éste con incorporación de fotografías; cuantificación de los perjuicios. En suma, se trata de actuaciones propias de un expediente por responsabilidad patrimonial.*

*En consecuencia, damos por reproducidas las consideraciones vertidas en la anterior comunicación poniendo especial énfasis en pedir que se adecue la actividad del Ayuntamiento a las previsiones del Real Decreto 429/1993, de 26 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de los procedimientos de las Administraciones Públicas en materia de responsabilidad patrimonial.*

*Por lo que respecta a la mención de que se ha dado cuenta del tema a la entidad privada aseguradora contratada por el Ayuntamiento para la cobertura de los riesgos por su actividad y más allá del valor informativo del dato, son conocedores de que esta circunstancia no diluye el carácter municipal del expediente por responsabilidad ni exime de la obligación de resolución expresa por parte del Ayuntamiento.*

*Así pues, comprenderán la necesidad de que tengamos que volver a dirigirnos en demanda de colaboración para que en el plazo de un mes nos informen de la decisión adoptada en torno a la reclamación que nos ocupa a la luz de las anteriores consideraciones...”*

Komunikazio berri horri eman zitzaion erantzunean, ostera lehen adierazitakoa adierazi zen, hau da, udala erreklamazioa berariaz ebazteko prest ez zegoela berretsi zen; horrela, hasitako espediente epe barruan ez ebaztea prozedura bukatzeko aukeren artean dagoela argudiatu zuen udalak.

3. Udalari bidali dizkiogun gutunetan, berariaz ebazteko betebeharrak –prozedura edozein izanik ere– aitzakiarik ez duela ametitzen agerian jartzen saiatu gara. Halaxe agintzen du, oro har, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak 42.1 artikularen lehen paragrafoan, eta gauza bera esan daiteke ondare-erantzukizuneko prozeduraz; ondare-erantzukizunaren gaia lege horren 139. artikuluan eta hurrengoetan ageri da, eta horren prozedurazko alderdiak lehen aipaturiko erregelamenduan arautzen dira.

Testu horietako bakar batean ere ez da nolabaiteko eragina izan dezakeen berezitasun garrantzitsurik zehazten, hau da, aztertzen ari garen kasuari



dagokionez, ez dago inolako arrazoirik prozedura berariazko ebazpen baten bidez amaitu behar dela ez onartzeko. Aitzakia gisa ez dago esaterik, udalak dioen moduan, aurrekariak erreklamazioa ezestera eramango lukeela, izan ere, lehen adierazi dugunez, garatuko den prozedurak emango du, hain zuzen, tartean dauden interesak –zalantza barik, kontrajarriak– baliarazteko aukera, prozedura hori bideratzean lortzen den emaitzaren argitan zuzenbidearen araberako ebazpena eman dadin.

Udalak emandako bigarren azalpena dela-eta –alegia, berariazko ebazpenik ez ematea prozedura amaitzeko modu bat izango litzatekeela eta, hortaz, administrazioak jada ez lukeela berariazko ebazpena eman beharrik izango–, iruzkin hau egin nahi dugu:

Gai horren gainean, gure irizpidea oinarritze aldera, Eduardo García de Enterría eta Tomás-Ramón Fernándezek beren *Curso de Derecho Administrativo I* liburuan administrazioaren isiltasun negatiboari buruzko araudiaz diotena hona ekartzea merezi du: “...*El artículo 43.3, párrafo segundo, LRJPA establece con toda claridad que ‘la desestimación por silencio administrativo tiene los solos efectos de permitir a los interesados la interposición del recurso administrativo o contencioso-administrativo que resulte procedente’. No pone fin, por tanto, al procedimiento en el que se produce, ni exonera a la Administración de su obligación de dictar resolución expresa, obligación que no admite excepción alguna* (‘en todos los procedimientos (...) cualquiera que sea su forma de iniciación’, dice el art. 42.1)

(...)

*Es, pues, no sólo posible, sino necesaria la resolución expresa posterior al vencimiento del plazo fijado en cada caso por la norma reguladora del procedimiento de que se trate, resolución que ‘se adoptará por la Administración sin vinculación alguna al sentido del silencio’ (art. 43.4.b), precisión esta que subraya y ratifica el alcance exclusivamente procesal de la figura del silencio negativo claramente afirmada en el apartado anterior del mismo precepto.*

*Sigue en pie, por tanto, la alternativa tradicional de utilizar la ficción legal en que el silencio negativo consiste a los efectos de poder interponer sin demora el correspondiente recurso administrativo o jurisdiccional desde el momento mismo en que aquél pueda entenderse producido por el transcurso del plazo establecido para resolver o esperar a que se produzca la obligada resolución expresa, opción que es enteramente libre para el interesado y de la que en ningún caso puede seguirse, por tanto, perjuicio alguno para él...”*



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**28/2004 GOMENDIOA, azaroaren 23koa, Ermuko Udalari egina**

Berriaz ebatz dezala 2003ko ekainaren 30ean (...)k ondare erantzukizunagatik udal horren kontra jarri zuen erreklamazioa, horrelako erreklamazioei dagokien prozedura burutu ondoren.